

Futbol partida solidario batean Afrikako jokalariselektzio bat euskal konbinatu baten aurka arituko da Las Llanas zelaian

Partida maiatzaren 25ean jokatuko da, 19:00etan

Sestao, 2022ko maiatzaren 18a. Maiatzaren 25ean, 19:00etatik 21:00etara gutxi gorabehera, futbol partida berezia jokatuko da Las Llanas Udal Zelaian. Partida solidarioa izango da eta Euskadi XI konbinatuak aurre egingo dio African All Star taldeari.

Ekitaldia EGBA Kirolak taldeak antolatuko du Udal Kirol Zerbitzuaren laguntzarekin eta hainbat erakunderen babesa ere izango du, besteak beste, Euskadiko Futbol Federazioarena, Athletic Fundazioarena, Metro Bilbaorena eta Solidaridad Internacional Gobernuz Kanpoko Erakundearena.

Partidan lortzen den dirua EGBA Kirolak klubaren kirol-proiektua indartzera bideratuko da oso-osorik.

EGBA Kirolak Sestaon jaiotako kluba da, kirolaren bidez, futbolaren bidez kasu honetan, afrikar komunitatearen integrazioa eta garapena bultzatzeko helburua duena.

EGBA Kirolak klubaren ernamuina 2019ko ekainean Galindoko kirol-instalazioetan egin zen futbol-txapelketan dago. Bertan, Afrikako zenbait familiaren umeek eta Sestaoko klubetako hurrek parte hartu zuten.

Txapelketaren ondoren EGBAko zuzendaritza-batzarrak eta Kiroletako Udal Zerbitzuak zenbait bilera egin zituzten Sestaon jatorri afrikarreko jokalariz osatutako klub bat sortzeko ideia garatzeko.

Sarreraren salmentaren bidez lortutako diruarekin, EGBA Kirolak-ek klubaren gaitasun ekonomikoa hobetu nahi du, kirolaren bidez afrikar komunitatearen eta bere ondorengoen integrazioa eta osasuna sustatzera bideratutako jarduerak berriak garatzen jarraitzeko. Ildo horretan, buruan duen helburu nagusietako bat kluba federatzeko ametsa gauzatzea da, 2022-2023 denboraldian eskualde-mailan lehiatzen has dadin.

Ekitaldiak Euskadi XI eta African All Star taldeen arteko futbol partida eskainiko du. Euskadiko taldean Sestao, Portugalete, Santurtzi, Barakaldo... klubetako hainbat jokalarik parte hartuko dute. African All Star taldea, aldiz, Europako klubetan aritzen diren afrikar jatorriko jokalariek osatuko dute.



Kirol emanaldian zozketa bat ere egingo da. Sarrera aldez aurretik eskuratzen duten ikusle guztiek zozketa horretan parte hartuko dute, eta ekitaldian zehar kultur eta musika emanaldiak izango dira. Sarreraren prezioa: 5 € Tribuna, 3 € Preferentea eta 1 € 10 urte arteko haurrak.

Argibide gehiagorako:

EGBA kirolak futbol kluba.
Hel: El Sol, 1. 48910 Sestao, Bizkaia.
egbasports@gmail.com
Telefonoa: +34 698411614

KPT - Sestaoko Kirol Promozio Taldea.
sestaokirolpromoziotaldea@gmail.com